

Formazioa

(aurrez-aurre, online eta irekia)

EBALUAZIO ZENTZUDUNA

Tresna hezigarri eta inklusiboak

Mikel Fernández Sánchez



Justifikazioa:

XXI. mendeko hezkuntzak ebaluazioaren inguruan dugun ikuspegiaren aldaketa sakona eskatzen du. Sailkapenean eta kalifikazioan zentratuta dagoen ikuspegi tradizionaletik aldentzea eskatzen du. Gure formazioak ebaluazioaren eraldaketa bultzatu nahi du, inklusiboa eta hezigarria den ebaluazioa, ikaskuntza esanguratsua bultzatzen duena eta haurren eta gazteen garapenaren etapak aintzat hartzen dituena.

Ebaluazioaren inguruan izan dugun ikuspegia desmitifikatu nahi dugu, elkar ulertzea, hobetzea eta motibazioa ahalbidetu dezakeen prozesu bilakatuz. Informazio baliotsua lortzeko aukera bat da, irakaskuntza doitzen lagunduko diguna, zailtasunak identifikatzen eta lorpenak ospatzen. Autoerregulazioa eta metakognizioa ere sustatzen ditu ikuspegi honek, ikaslea bere ikaskuntza-prozesuan aktiboki inplikatzeari bultzatzen baitu.

Honetaz gain "Ebaluazio zentzudunak" akatsa ikaskuntza iturri bezala ikusten du, ez oztopo bezala. Bestalde, ebaluazio hezigarrirako estrategien erabilera ere sustatzen du, etengabeko atzeraelkadura eraikitzailea bultzatuz eta ikasleari ikaskuntza-helburua lortzeko zer eta nola hobetu behar duen ikustaraziz.

Emaitzak neurtzeaz haratago doan ebaluazio bat proposatzen dugu; ikaskuntza prozesua lagundu eta aberastean oinarritzen dena, irakasleen hausnarketa eta benetako ebaluazio praktikak bultzatuz, ikasle bakoitzaren erritmoa errespetatuz, beraien lana eta esfortzua aintzat hartuz eta etengabeko hobekuntza bideratuz.

Azken batean, ikaslearen garapen integrala sustatzeko eta hezkuntza bidezkoago eta eraginkorragoa lortu nahian, ebaluazioa prozesu dinamiko eta eraldatzaile bihurtzeko beharrezkoak diren tresnak eta estrategiak eskaintzen dizkie irakasleei formazio honek.



Helburuak:

- Konpetentzien araberako ebaluazio hezigarri motak, kontzeptuak eta xedeak ulertzea, ebaluazioaren eta kalifikazioaren arteko bereizketa eginez, akatsa ikasteko aukera bezala ulertuz eta autoerregulazioa eta ikaskuntza esanguratsua errazteko feedback eraginkorreko printzipioak aplikatuz.
- Hasierako ebaluazioa, hezigarria eta batutzailerako estrategiak diseinatzea eta inplementatzea, akatsa kudeatzeko eta atzeraelikadura konstruktiboko teknikak aplikatuta, ebidentziak biltzeko, erabaki pedagogikoak hartzeko eta ikaskuntza integrala erraztuko duten praktika etiko eta inklusiboak ziurtatzeko.
- Ebaluazio hezigarriaren kultura sustatzea, bidezkoa, elkarriketa eraikitzailearen bidez, irakasleen, ikasleen eta familien arteko lankidetzaren bidez, eta ingurune seguruak sortuz, non akatsa ikaskuntza-prozesuaren funtsezko zati gisa balioetsiko den.
- Ebaluazioarekiko jarrera irekia eta etikoa sustatzea, hazteko konfiantza, motibazioa eta pentsamoldea sendotuko dituen, irakasleen garapen profesionala eta pertsonala bultzatzeko atzeraelikadura positiboa eta eraikitzailea eskainiz.



Edukiak:

- **Ebaluazioa vs. Kalifikazioa: Hezkuntza-paradigma aldatzeko oinarriak.**
 - Ebaluazioaren eta kalifikazioaren arteko diferentziak: kontzeptuak, xedek eta praktikak.
 - Ikaskuntzara bideratua dagoen ebaluazio gogoetatsua egiteko mugatzen gaituzten usteak desagitea.
 - Ikasleen garapena sustatuko duen ebaluazio hezigarria ezartzeko estrategiak.
- **Ebaluazio Modalitateak eta Tresna Praktikoak**
 - Ebaluazio diagnostikoa, hezigarria eta batutzailea diseinatzea eta aplikatzea.
 - Ikasgelan akatsa eta autoerregulazioa eraginkortasunez kudeatzeko teknikak.
 - Ikaslearen parte-hartze aktiboa sustatzea, koebaluazioaren eta autoebaluazioaren bidez.
- **Feedback hezitzailea eta honek ikaskuntzan duen eragina**
 - Atzeraelikadura eraginkor eta eraikitzailearen printzipioak eta praktikak.
 - Feedbacka: etengabeko hobekuntza bultzatzen duen ingurune seguruak sortzeko estrategiak.
 - Ikaskuntza esanguratsua motibatzen, bideratzen eta indartzen duen atzeraelikaduraren kultura garatzea.
- **Ebaluazio etiko eta inklusibo baterantz**
 - Etika eta hezkuntza printzipioekin bat datozen ebaluazio-praktikak ezartzea.
 - Akatsa ikasteko aukera gisa baloratuko duen kultura sustatzea.
 - Legezko jarraibideak eta estrategiak, bidezko ebaluazioa egiteko.

Nori zuzendua:

Haur/Lehen Hezkuntzako maisu-maistrak, (DBH) Bigarren Hezkuntzako eta (LH) Lanbide Heziketako irakaslegoa.



Aurrez-aurreko saioak

- 12 orduko formazioa.
- Ibilbide sakona PBIren marko teorikoan zehar.
- 2 orduko saioa da gutxienekoa; hobe saio luzeagoak badira.
- Formazioan zehar irakasle bakoitzak bere hurrengo proiektu edo ikas-egoera izango denaren programazioa egingo du.
- Lan hau burutzeko, proposamen metodologiko honekin lotutako zenbait zehar lerro ere jorratuko dira: ebaluazioa, inklusioa, irakasle eta ikaslearen rola...

Formazio irekia

- Grabatutako saioak: Edukia zure erritmora eta nahi duzun alditan ikusteko aukera.
- Material osagarria: Landutako gaietan sakontzeko baliabide gehigarriak.
- Eskaintza modalitate desberdinak:
 - Ikastetxeak: Online mentoretza, aholkularitza eta galdera-erantzunen saioetarako sarbidea.
 - Banakakoa: Online saio gehigarriak gabe.
- Eskuragarritasuna eta prezioa: sarbide-denbora eta kostuak, modalitatearen arabera (banakakoa edo ikastetxea).
- Ikaskuntza autonomia: Ezin hobe aurrerapena modu independentean kudeatzeko.

Zuzeneko online saioak

- Zoom aplikazioaren bidez emailearekin egiten den formazioa da. Aurrez aurreko formazioaren ordu kopuru eta eduki berberak izango ditu.

Emailea

Haurrak ekinean" liburuaren egilea. Lehen Hezkuntza eta PT maisua. 25 urte baino gehiagoko hezkuntza ibilbidea du egina. Bere lanak Proiektuen Bidezko Ikaskuntza (PBI) du ardatz, ikasleen aniztasunera egokitutako hezkuntza inklusibo eta aktibo baten aldeko konpromisoa islatzen duena.

Hainbat ezaugarri eta testuingurutako eskoletan lan egin du, adin anitzeko taldeekin eta inklusioa eta parte-hartzea sustatzen duten metodologia aktiboak eta manipulatioak aplikatuz. Besteak beste, honako hauek dira bere espezialitateak: Proiektuen Bidezko Ikaskuntza, ikaskuntza kooperatiboa, ebaluazio-estrategiak eta inklusioa.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako zuzendaria izan da Mikel. Bestalde, Arabako Berritzegunen ere egin du lan, aholkulari gisa eta irakasleen formazioan.

Honetaz gain, hitzaldi eta formazio ugaritan parte hartu du hizlari gisa, PBI, ebaluazioaren, inklusioaren eta metodologia aktiboen inguruan dituen ezagutzak partekatuz.



Kontaktua:

Mikel Fernández Sánchez

Maite Etxeberria Elkoro

proiektatu@gmail.com

Telf: 688 631 452

www.proiektatu.com